

## Conférence de presse - Bilan d'Emmanuel Macron à Biarritz - 19/01/22



Nous arrivons à la fin du quinquennat d'Emmanuel Macron, c'est l'heure du bilan : le président Macron est coupable de sabotage climatique ! Aujourd'hui, alors qu'il prend la tête du Conseil de l'UE, nous montrons, partout dans l'Hexagone, son vrai visage à l'Europe entière.

En brandissant l'un des 151 portraits présidentiels que nous avons décrochés dans les mairies de l'Hexagone, nous dénonçons le bilan d'Emmanuel Macron, catastrophique en termes de justice climatique et sociale. Pour avoir mené à visage découvert ces actions de décrochage et dénoncé l'inaction criminelle du gouvernement Macron face au dérèglement climatique, ce sont **84** activistes d'Action Non-Violente COP21 qui ont été poursuivis par la justice, et 6 activistes de Bizi qui ont écopé de plus de 30 heures de GAV.

Cette campagne de décrochage des portraits d'Emmanuel Macron dans les mairies a été lancée entre autres pour soutenir l'Affaire du Siècle, un recours contre l'Etat pour inaction climatique lancé par 4 ONG et soutenu par plus de 2,3 millions de personnes. La pétition la plus signée de l'Hexagone. Et la justice leur a donné raison : en 2021, l'Etat a été reconnu coupable d'inaction climatique, et condamné à réparer les conséquences de cette inaction d'ici au 31 décembre 2022 !

De même, dans l'affaire Grande Synthe, le Conseil d'Etat avait jugé qu'au rythme actuel de réduction d'émissions de gaz à effet de serre, la France ne respectait pas la trajectoire fixée dans la Stratégie nationale bas carbone (SNBC), soit une baisse de 40% des émissions de gaz à effet de serre à horizon 2030. L'État français a été condamné à agir : au 31 mars 2022, il devra démontrer au Conseil d'État qu'il a mis en place les mesures nécessaires pour remettre le pays sur les bons rails. Spoiler alert = ce n'est pas le cas !

**Cependant, malgré ces deux condamnations, que ce soit pour la Convention Citoyenne pour le Climat, la loi Climat ou les sommets climatiques internationaux, on voit bien que 6 ans après la signature de l'Accord de Paris, la France n'est toujours pas à la hauteur de l'urgence climatique.**

Le **transport**, premier secteur émetteur de gaz à effet de serre en France, illustre bien l'absence de vision systémique et de volonté climatique d'Emmanuel Macron. En guise d'exemples : aucune avancée sur la réduction de la place de la voiture individuelle, le ferroviaire et le vélo, et des mesures beaucoup trop faibles prises sur le secteur aérien.

**Sur le logement**, le candidat Emmanuel Macron s'était engagé à rénover la moitié des logements passoires énergétiques avant la fin du quinquennat. Le résultat est très loin du compte tant du point de vue quantitatif (nombre de logements rénovés) que qualitatif (niveau de performance de ces rénovations).

**De même, au niveau de l'agriculture,** le candidat Emmanuel Macron promettait, en 2017, une présence de 50 % de produits bio, écologiques ou issus de circuits courts dans les cantines scolaires et les restaurants d'entreprise. Le bilan de la loi EGalim montre que ces objectifs n'ont pas du tout été atteints.

**Sans oublier l'énergie, où règne l'obsession du nucléaire.** Adeptes de toujours plus de consommation et de croissance, Emmanuel Macron n'a mis en place aucune politique de questionnements de nos usages de l'énergie ou de pédagogie sur le sujet, et a reculé sur la réduction de la place du nucléaire dans notre mix énergétique et sur la fermeture des centrales à charbon.

- **Nous voulons que la France soit à la hauteur de l'enjeu climatique.** Notamment en mettant en place des mesures ambitieuses et radicales dans tous les secteurs, afin de s'aligner sur la trajectoire d'un réchauffement climatique limité à +1,5°C.
- **Nous voulons que l'Etat garantisse la justice sociale** en supprimant immédiatement les privilèges accordés à une minorité, et en mettant en place des mesures d'accompagnement pour les personnes les plus précaires et les plus vulnérables au dérèglement climatique.

Et surtout, nous voulons dire **stop au double discours hypocrite et anesthésiant, nous demandons des actes !** Les discours de greenwashing d'Emmanuel Macron sont pires que l'inaction : **ils renforcent l'illusion** que la France serait sur la bonne trajectoire et repoussent les actions structurelles pour le climat.

Nous illustrons, en plongeant le portrait d'Emmanuel Macron dans du simili pétrole, son quinquennat qui a été marqué par des décisions climaticides, favorables aux énergies sales et aux projets rétrogrades, et sa politique qui creuse encore et toujours les inégalités. Emmanuel Macron reste englué dans les modèles du passé, dans une vision périmée du monde.

Les citoyens et citoyennes, ainsi que les scientifiques, le demandent depuis des décennies, la justice l'exige désormais : l'Etat doit AGIR pour le climat, rapidement et concrètement !

Mais la France n'a malheureusement pas le monopole de l'inaction. On ne pourra pas atteindre une trajectoire viable de réduction d'émissions de gaz à effet de serre si les collectivités locales ne jouent pas pleinement leur part. Ici aussi, au Pays Basque nord, il faut sortir d'un "réalisme" de l'inaction. Pour préserver des territoires habitables, il faut que le "principe de réalité" dont se prévalent régulièrement les élu·es intègre enfin les réalités physiques dont nous alertent les scientifiques depuis 30 ans !

Les collectivités locales sont responsables, directement et indirectement, de 50% des émissions de GES. Aucune métamorphose écologique ne pourra avoir lieu sans une implication massive, rapide et au-delà des mots des communes et des collectivités.

Après plus d'un an de mandat des élus locaux, les sentinelles écologiques de Bizi! ont sorti leur 1er rapport sur l'état de la métamorphose écologique au Pays Basque : la grande majorité des communes n'a pas débuté la métamorphose écologique à laquelle elles s'étaient pourtant engagées en 2020. Sur les 56 communes suivies (87% de la population de la CAPB), la plupart des communes (40) est toujours au stade de l'inaction.

La Communauté d'Agglomération Pays Basque, quant à elle, n'a toujours pas prévu de réhausser ses objectifs pour 2030 : alors que l'Union européenne vise une réduction de 55%, le Plan Climat se contente d'une réduction de 19%. Il est grand temps de redescendre sur Terre et d'affronter lucidement les défis actuels plutôt que d'alimenter les catastrophes à venir.

## Prentsa Aitzineko



Emanuel Macronen kargualdiaren bukaerara heldu gira, bilana egiteko tenorea da: Macron presidentea klima-sabotajearen erruduna da! Orain, Europar Batasunako Kontseiluaren buru dela, Europa osoari erakusten diogu haren benetako aurpegia, Frantziako Estatuan, nunahi.

Frantziako Herriko Etxeetan hartu genituen 151 potretetako bat hemen erakutsiz, Emanuel Macronen bilana salatzen dugu, bai justizia klimatikoaren, bai sozialaren aldetik.

Ekintza horiek aurpegia agerian egiteagatik, eta Macronen gobernuak klima-desorekaren aitzinean duen jarrera kriminala salatzeagatik, Action Non-Violente COP21 taldeko 84 aktibista auzipetu ditu Justiziak, eta Biziko 6 ekintzailek 30 ordu baino gehiago eman dituzte atxiloturik.

Emanuel Macronen potretak Herriko Etxeetatik kentzeko kanpaina hau abian jarri da, besteak beste, Affaire du Siècle ekimena sustengatzeko. 4 erakundek abiarazi zuten Frantziako Estatuak klima alorrean duen gelditasuna salatzeke xedea duen ekimen hori, eta 2,3 milioi pertsonak baino gehiagok sustengatu dute. Frantzian gehien sinatua izan den petizioa da. Eta justiziak arrazoia eman zien: 2021ean, Frantziako Estatuak klima-ezegitearen hobenduntzat jo zuen, eta kondenatu 2022ko abenduaren 31a aitzin bere ekintza ezak ekarri kalteak konpontzera.

Gisa berean, Grand Synthe-ko auzian, Estatu Kontseiluak erabaki du Frantziak berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko gaur egungo erritmoa atxikitzen badu, ez duela betetzen karbono isurketak ttipitzeko Estrategia Nazionalak finkatu desmartxa, erran nahi baita da, 2030eko, berotegi-efektuko gasen isuriak % 40ez ttipitzea.

Frantziako Estatu mugitzera kondenatu dute: 2022ko martxoaren 31n, Estatu Kontseiluari erakutsi beharko dio behar diren neurriak hartu dituela. Spoiler alert = ez du fitsik egin!

**Hala ere, bi kondena horiek gertaturik ere, Klima legean, Klimaren aldeko herritarren Hitzarmenean eta Klimari buruzko Nazioarteko gailurretan, argiki ageri da Frantzia ez dagoela larrialdi klimatikoaren mailan, Parisko Hitzarmena sinatu eta sei urteren buruan.**

Garraio sailean, Frantziako berotegi-efektuko gas isurketen lehen sektorea, Emanuel Macronen ikuspegirik eta borondaterik eza argiki ageri da. Ez da neholako aitzinamendurik izan auto indibidualaren, trenaren eta bizikletaren gaietan, eta hegazkin sektorean hartu neurriak ere mugatuegiak dira.

Etxebizitza sailean, Emanuel Macron hautagaiak engaiamendua hartu zuen kargualdia bukatu baino lehen energia mailan txarrenak diren etxebizitzaren erdia berritzeko. Oso urrun gelditu da, bai kantitatean bai kalitatean.

Gisa berean, laborantza mailan, Emanuel Macron hautagaiak hitz eman zuen 2017an produktu biologikoak, ekologikoak edo zirkuitu laburretatik etorritakoak % 50eko presentzia izanen zutela eskola eta enpresa-jantokietan. EGAlim legearen bilanak erakusten du helburu horiek ez direla bete, produktu horiek gaur egun jantegi kolektiboetan jaten direnen % 5,6 baizik ez baitute biltzen.

Energia ere ez da ahortzi behar, non nuklearraren obsesioa nagusi baita. Beti kontsumo eta hazkunde gehiagoren aldekoa izanik, Emanuel Macronek ez du neholaz ere aztertu energiaren gaia, ez eta ere pedagogiarik pentsatu, eta gibelera egin du nuklearrak gure multzo energetikoan duen lekua murrizteari eta ikatz-zentralak hesteari buruz.

- Nahi dugu Frantzia klimaren desafioaren mailan izan dadin. Bereziki, sektore guzietan neurri azkar eta erradikalak ezarri, klimaren berotzea +1,5 graduko helburuarekin bat egiteko !
- Nahi dugu Estatuak justizia soziala berma dezan, gutxiengo bati ematen zaizkion pribilegioak berehala kenduz, eta klimaren desoreka gehien joko dituen pertsonak, ahulenak, laguntzeko neurriak ezarri !

Batez ere, diskurtso hipokrita eta bikoitzari GELDI erran nahi diogu. Ekintzak eskatzen ditugu!

Emanuel Macronen diskurtso berde faltsuak ekintzarik eza baino okerragoak dira: Frantzia bide onetik doalako ilusioa indartzen dute eta klimaren aldeko ekintza estrukturalak baztertzeko dituzte.

Emanuel Macronen potreta itxurazko petrolioan murgilduz, haren kargualdia irudikatzen dugu: klimaren kontrako eta energia zikinen aldeko erabakiz beterik, proiektu atzerakoiek markaturik. Haren politikak, desorekak beti eta gehiago larriagotzen ere ditu. Emanuel Macronek iraganeko eredueta murgildurik segitzen du, munduaren ikuspegi zaharkitu batean.

Badira urteak herritarrek eta zientzialariek hori eskatzen dutela, eta justiziak ere gauza bera eskatzen du: Estatuak klimaren alde lan egin behar du, fite eta konkretuki!

**Frantziak, zoritxarrez, ez du ekintzarik ezaren monopolioa.** Ezin izanen da berotegi-efektuko gasen isurketa murriztu, tokiko kolektiboek ez badute beren parte osorik egiten.

Hemen ere, Iparraldean, ekintzarik ezaren ustezko errealismotik atera behar da. Lurralde bizigarriak atxikitzeko, beharrezkoa da hautetsiek barnera ditzaten azken 30 urteotan zientzialariek erakusten dizkiguten errealitate fisikoak.

Lekuko elkargoek, zuzenean eta zeharka, Berotegi Efectuko Gasen % 50 isurtzen dute. Ezin izanen da metamorfosi ekologikorik burutu herrien eta elkargoen inplikazio masibo, azkar eta konkreturik gabe.

Lekuko hautetsien kargualdiaren lehen urtea baino gehiago pasatu ondotik, Bizi!-ko begirale ekologikoek lehen txostena atera dute, Euskal herriko metamorfosi ekologikoaren egoerari buruz: herri gehienek ez dute hasi 2020an hitzeman metamorfosi ekologikoa. Segitzen ditugun 56 herrietatik (Euskal Elkargoko bizilagunen % 87), herri gehienek (40) geldirik segitzen dute.

Euskal Herriko Hirigune Elkargoak ez du oraino pentsatzen 2030erako bere helburuak indartzea. Europar Batasunak % 55eko murrizketa erdietsi nahi badu ere, Klima Plana % 19ko ttipitzean mugatzen da. Bada garaia errealitatea argiki ikusteko eta egungo desafioei buru egiteko, etorkizuneko hondamendiak elikatzen segitu ordez.

**Conférence de presse - Bilan d'Emmanuel Macron - Biarritz - 19/01/2022**

